

Nafarroako Esaera Zaharrak. Beramendi.

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zarrak, 1974.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Nafarroako Esaera Zaharrak. Beramendi.

- 1361 *Al dena, itsasoan den arrai(r)ik oberena.*
Al den guzia egitea itsasoko arrai guziak baño baliosago da.
- 1393 *Egunei (egunari) dagokion gauik ez da.*
- 1397 *Ez da bearra bezalako mutillik (morroirik).*
Berrak beartzen du lanera eta gauzei kontu egitera.
- 1402 *Gari ona arguriotik saltzen da.*
Gauza onak bere txokoan, kanpora atera gabe baditu erostunak. Argurio = kutxa aundia. Oihenart-ek: "Oihal ona kutxan dagoela sal daite" (658).
- 1412 *Jainkoari esku ta Ama Birjiñari anka: or yoan da inki-manka*
. Beti ala-ola bizi izan zena, il da; Jainkoak daki nola.
- 1413 *Kandelera otz, yoan da negue motz: Kandelera bero, negue eldu da gero.*
Beste leku ta izkuntzetan ere olatsu.
- 1416 *Latin artu bearra ere izaten da.*
Apaizak bere esanari indar emateko latiña erabiltzen duen bezela, aldiz itz gogorragoak esan bearra izaten da.
- 1447 *Zenbat apez on, ainbeste erri on.*